

ONLINE BERTSO-ESKOLA

Nekez baina tinko eusten diote bertsolaritzari AEBetako euskaldunek

📁 KULTURA / Dabi PIEDRA

Pasa den martxo amaieran ehun-ka lagun batu ziren San Frantziskon, Kalifornian, Johnny Curutchet hilberriaren omeneko bertso saioan. Diasporako bertsolariak zein Euskal Herri-rik joandakoak elkartu ziren Basque Cultural Center-eko gaudian, giro bikainean, batzuen eta besteen jaioterrien artean milaka kilometro itsaso eta lur ez baleude bezala. Wyomingeko euskal-amerikar bat izan zen gai-jartzaile, Mikaela Goicoechea; eta bizkaitar bat arduratu zen publikoari bertsoen mamia ingelesez azaltzeaz, Xabi Paya.

Saio biribila izan zen, baina errealitatea gordinagoa da, AEBetan bertsolaritza egoera zaillean baita. Bertsolariak zahartzen ari dira eta, Johnny Curutcheten kasuak agerian uzten duenez, baita hiltzen ere. Gazteen artean lekukoa hartuko dutenak aurkitzea ez da erraza, belaunaldi berrietan gehienek ez baitakite euskaraz. Euskal dantzak, kirolak eta ohi-turak maite dituzte, baina, noski, bertsotan egiteko hizkuntza ere beharrezkoa da.

«Gazteak erakartzeko arazo bat dugu, bertsotan egiteko euskaraz jakin behar dela», dio Todor Azurtzak. «Azkenaldian sumatu dut hizkuntza berreskuratzeko gogo bat, gazte batzuk Maizpideko [Gipuzkoa] barnetegira joaten dira, baina gero beste pauso bat dator, hau da, bertsotan egiteko gogoia eta gaitasuna izatea; Euskal Herrian ere, euskaldun guztiak ez dira bertsolari», gaineratu du. Luzaroan Idahon bizi izan da Azurtza, eta AEBetan bertsolaritza sustatzeko egiten diren ekimen askoren atzean dago. Horien buru, Bertsolaritzari

Bizimodu oparoago baten bila euskaldunak Mendebalde Urrunera joaten hasi zirenetik, bertsoak Ipar Amerikako diasporaren parte izan dira, eta katea ez da eten. Hala ere, euskal hiztunak gero eta gutxiago dira, eta gehienak zaharrak. Hortaz, bertsolaritza biziberritzeko bide berrien bila ari dira, adibidez, internet bidezko topaketak eginez.

Arnasa Berritu programa, 2022tik martxan dena.

Estatu Batuetako bost bertso-lari betetanorik egindako omenaldian jaio zen programa abian jartzeko ideia. Johnny Curutchet, Jesus Goñi, Martin Goicoechea, Gratien Alfaro eta Jesus Arriadari egin behar zieten gorazarrea 2020an, baina, pandemiaren erruz, 2022an egin zen saioa, San Frantziskon. Bost omenduak adinean gora zihotzen, batzuek plazak utziak zituzten eta, kezkaz, Martin Goicoechea eta Franxoa Bidaurreta hurbildu zitzaizkion Todor Azurtzari. «Hura galtzen ari zela eta zerbait egin behar genuela esan zidaten».

Herrialdeko euskal etxeen bilgune den NABOren laguntzaz sortu zuten Bertsolaritzari Arnasa Berritu, hiru helbururekin: aurrenekoa, saioak antolatzea AEBetan, bertako eta Euskal Herriko bertsolariekin; bigarrena, euskal-amerikarrek hain gogoko dituzten festa eta picnic-etan bertsoari lekua egitea; eta hirugarrena, bertsolari berriak sortzea. Azken asmo horri Azurtzak heldu zion eta berehala hasi zen Boiseko bertso-eskola berrirako ikasleen bila.

Azurtzak zehaztu duenez, Boiseko Arnasa Berri bertso-eskola izanagatik, egoitza fisikorik ez dago, euskal-amerikarrek ia hamar milioi kilometro koardroko herrialdean sakabanatu-

ta bizi baitira. Interneten elkartzen dira astean behin Idaho, Kalifornia, Oklahoma, Wyoming, Washington DC eta New Yorkeko bertsolariak, Skype bidezko saioetan. «Martinek [Goicoechea] proposatutako erronkari erantzunez hasi nintzen bertsolaritza sakontasunez lantzen eta, Skype bidezko bertso-eskola martxan hasi zenean, neroni jarri nintzen irakasle,

aurretik sekula halako lanik egin gabea nintzen arren», dio Azurtzak.

Bertsoari helduko zioten ikasleak aurkitzea ez zen erraza izan, baina gutxi batzuk animatu ziren. New Yorkeko Euskal Etxera iritsitako deialdi baten bidez izan zuen ekimenaren berri Nerea Eceiza Arreguik: «Harrigarria, pozgarria, iruditu zitzaidan Ameriketako bertso-eskolan parte hartzeko aukera izatea». Hala, 2022ko udazken hartan murgildu zen lehenengoz bertsogintzan. Euskal Herrian jaio eta hazitakoa da Eceiza, baina New Yorken hamar urte zeramatzanean izan zuen lehenengo kontaktua bertsoarekin, Arnasa Berri eskolari esker.

Herrialdearen beste muturrean, Ozeano Barearen ertze-ko San Frantziskon, agertu zen

San Frantziskon Johnny Curutchet bertsolariaren omeneko saioa izan zen martxo amaieran. Euskal Herri-rik ere bertaratu ziren bertsolariak. GAUR8



bertso-eskola birtualerako beste ikasle bat, Oier Pastor. Euskal Herrian bertsotan aritu izan diren kideak ere badabil-tza, edo ibili izan dira, Skype bidezko saioetan, esate batera-ko, Oklahoman bizi den Ibon Ajuria eta Washington DC hiri-buruan urte batzuk darama-tzan Urtzi Urrutikoetxea. Mar-tin Goicoechea beteranoak ere ez du hutsik egiten, Wyomin-getik. “Atzerritar” bat ere ba-dute, Ibon Iza, Dimatik (Biz-kaia) konektatzen baita.

«Skypek dakarren abantaila argi dago, elkarrekin egon gabe ere bertso giroa mantentzeko aukera ona da», dio Urtzi Urru-tikoetxeak. Washingtonen bizi denetik, Santutxuko Bertso Es-kolako osteguneroko hitzor-duen hutsunea du, «nolabait hori betetzen lagundu dit». Onartzen du, jakina, bertsola-


Herrialdeko euskal etxeen bilgune den NABOren laguntzaz sortu zuten Bertsolaritzari Arnasa Berritu programa, eta horren barnean, Boiseko bertso-eskola berria

Bertso-eskolak ez du egoitza fisikorik eta Skype bidez elkartzen dira astean behin Idaho, Kalifornia, Oklahoma, Wyoming, Washington DC eta New Yorkeko bertsolariak

riek nahiago dutela elkarren ondoan egon, «joan-etorriko komunikazioa» baita eurena, interneten galdu egiten dira “keinu txikiak”. Edonola ere, pantailaren bidezkoa «momen-tu gozagarria» dela azpimarra-tzen du, «asko estimatzen dut». Nerea Eceizak gaineratu due-nez, «pantaila aurrean bertso-tan egitea, zuzenean egiteare-kin alderatuta, oso esperientzia desberdina da».

Hasiera batean igandeetan izaten zen bertso-eskolakoen hitzordu birtuala, goizez. Urrutikoetxeak gogoan du Ekialdeko kostaldean goizeko hamarretan hasten zirela, bai-na, noski, ordu aldaketen kon-tura, Wyoming eta Idaho al-dean zortziak ziren. Gero, astearteetara aldatu zuten eguna. Eceizak ere aipatu ditu eskualde bakoitzeko ordute-gietara moldatzeko egiten di-tuzten “tetris”-ak.

Ia hiru urteko jardunari es-ker, bertsolari peto bihurtu di-ra Oier Pastor eta Nerea Ecei-za, oholtzetan ere aritzen dira, jendaurrean. Adibidez, San Frantziskon abestu zuten mar-txoan, Johnnny Curutcheten omenezko saioan. Todor Azur-tzak azaldu du Skype bidezko hitzorduak dagoeneko ez dire-la eskola hutsak, eta topaketa kutsua hartu dutela: «Jada ez dago garbi nor den irakasle eta nor den ikasle». Lanaren eta



konpromisoaren ondorioa da, Azurtzaren ustez: «Hasi gine-nean, seriotasuna eskatu nien ikasleei, astero-astero elkartuz gero ziur bertsolari izango zi-rela agindu nien, eta frogatu da baietz. Bertsotan aritzeko gai diren pertsonak sortzeko gai izan gara».

EUSKARAREN BABESLEKU

Euskal identitatearekin lotuta jarraitzeko modua da bertsola-ritza Estatu Batuetara joan dire-n artean. Esaterako, Nerea Eceizak onartzen du, ama hiz-kuntza euskara duen arren, ha-mar urte Ameriketara pasa eta gero «deiak eta mezuak euska-raz artikulatzeko gaitasuna nahiko galduta» zuela. «Ber-tsoari esker, hizkuntza gaitasu-na berreskuratu dut».

Bigarren edo hirugarren be-launaldiko euskal-amerikar gehienentzat, ordea, hizkuntza bigarren mailako elementua da identitatea eraikitzeke ordutan, *Basque* asko baina euskaldun

gutxi daude. Hartara, komuni-tateko kiderik zaharrenak hil-tzen doazen heinean, euskara ere urritzen doa Euskal Etxeen bilkura, jaialdi eta abarretan. Egoera horretan, bertsolaritzak har lezake hizkuntza berriro ikusgai egiteko ardura; alegia, bertsolaritzak euskara behar duen bezala, euskarak ere ber-tsolaritzaren hauspoaren beha-rra du Estatu Batuetan. «Bertso-laritzak aitzakia ederra da euskara plazan jartzeko, bestela, ez da euskara askorik entzu-ten», dio Todor Azurtzak.

Bereziki herrialdearen mendebaldean, Kalifornian, Nevadan eta Idahon, ohikoak dira euskal jai eta bilkurak, askotan picnic eran antola-tuak. Halakoak aprobetxatu behar direla uste du Azur-tzak, eta bertso saioak egita-rauan sartu. «Batzuek galde-tzen dute ea zertarako behar diren bertso saioak picnic-etan, askok ulertu ere ez ba-dute egiten. Bada, batetik,



Goiko irudian, Curutchet bertsolaria. Bere heriotzarekin nabariago geratu da AEBetan bertsolarien segidaren falta.
GAUR8



gure kultura azaleratu behar dugulako, ez baduzu zerbait ikusten ez duzu interesik izango; bigarrenik, publikoa sortu behar dugulako, bertsolaritza komunikazioa da, entzuleen erreakzioak eragina du».

Egon badaude bertsozale sutsuak Estatu Batuetan, gero eta gutxiago badira ere. Publiko berria erakartzeko orduan, berriz, zuzeneko itzulpena tresna eraginkortzat jo du Azurtzak. «Behin, saio batean, haur bat entzun nuen galdezka ea bertsolariek zergatik kantatzen zuten abesti bera behin eta berriro; noski, zer gertatzen den ez baduzu ulertzen, bertsolaritzak monotonoa irudi lezake kanpotik». Xabi Payak egiten duen lana goraipatu du, urtero joaten baita San Frantziskoko Basque Cultural Center-eko saiora bertsolarien esanak unean bertan ingelesera itzultzerak. Aurten, San Frantziskokoaren biharamunean, beste saio batean ere zeregin horretan aritu zen, Chinon (Kalifornia). «Etorkizuna hori izan daiteke», dio Azurtzak.

XALBADOR ETA MATTIN

Urteak joan urteak etorri, Estatu Batuetako bertsolarien biltoki nagusia bilakatu da San Frantziskon egiten duten “saio mundiala”. Skype bidezko eskolaren fruituak ikusi ahal izan dira aurten, Nerea Eceiza eta Oier Pastor kantuan aritu baitziren Todor Azurtza eta Martin Goicoechearekin batera. Euskal Herritik joan ziren, gainera, Xabat eta Joanes Illarregi anaiak, Sebastian Lizaso eta Aitor Mendiluze. 200 entzule inguru batu ziren. Bertsoak entzuteaz gain, bazkari ederra egin zuten eta, iluntzean, Bulego taldearen kontzertuaz gozatu zuten.

Aurtengo edizioa Johnny Curutchet omentzeko erabili dute,

Ia hiru urteko jardunari esker, bertsolari peto bihurtu dira Oier Pastor eta Nerea Eceiza, oholtzetan ere aritzen dira. Adibidez, Johnny Curutcheten omenezko saioan abestu zuten

«Skypek dakarren abantaila argi dago, elkarrekin egon gabe ere bertso giroa mantentzeko aukera ona da», dio Washingtonen bizi den Urtzi Urrutikoetxeak

Bertsolaritzari Arnasa Berritu izeneko ekimenari esker sortu den online bertso-eskola. Astean behin egiten dute pantaila bidezko bertso-eskola. GAUR8

2024ko abenduan zendu baitzen. Curutchetek euskara, euskal kultura, dantzak, pilota eta, jakina, bertsolaritza sustatzen egundoko lana egin zuen Kalifornian. Haren hutsunea betetzea zaila izango den arren, San Frantziskon bertsolaritzaren alde ari dira, nekaezin, Franxoa Bidaurreta eta Philippe Axeritogarai, besteak beste. Orain Oier Pastor batu zaie, eta Martin Goicoecheak ere, Wyoming Kaliforniatik urrun badago ere, egundoko ekarpena egiten du.

San Frantziskoko Basque Club, hain zuzen ere, bertsolaritzari lotutako gertakari batek eraginda sortu zela azaldu du klubeko diruzain Philippe Axeritogarai: «Euskal etxerik ezean, San Frantziskoko euskaldunak frantsesten eta espainolen klubetan elkartzen ziren, eta behin Xalbador eta Mattin ekarri zituzten kantatzera, frantsesten klubaren picnic batean. Euskaraz aritzeagatik mikrofonoak itzali zizkieten eta euskaldunak biziki atsekabetu zituen horrek, gau hartan bertan, gazte batzuek sortu zuten Basque Club».

1960ko pasadizoa da hori, baina gaur arte ez da bertsoza-

letasuna itzali Kalifornian. 2010era arte, hala ere, giro informalean baino ez zuten bertsotan egiten. «Hemengo bertsolariak (Johnny Curutchet, Gratien Alfaro eta Jesus Arriada) bertsotan aritzen ziren meztan edo gure ekitaldietako bazkalosteetan», oroitzen du Axeritogarai. Klubak 50 urte bete zituenean bururatu zitzaien bertso saio bat oso-osorik antolatzea. Estatu Batuetako bertsolariez gain, Andoni Egaña eta Maialen Lujanbio txapelduna eramán zituzten Euskal Herri-tik. Harrezkero, ohikoak dira halako saioak.

Udan berriro elkartuko dira Estatu Batuetako eta Euskal Herriko bertsolariak, Boiseko Jaialdi ospetsuan. Bost urtean behin egiten da ospakizuna, baina, pandemia tarteko, 2015etik ez da egin. Egitarau ofizialean sartu dute saio bat, Nerea Ibarzabal eta Onintza Enbeitarekin. Gainera, Convention Center-en Jaialdiko egun guztietan egoten diren agerraldietan bertsolaritzak lekua izango du, dantzekin eta kantuekin batera, Todor Azurtzak aurreratu duenez. San Inazio egunez urtero Boisen egiten den ospakizun tradizionalean ere, aurreko bi urteetan bertsolariak egotea lortu du Azurtzak.

JENDE GEHIAGOREN BILA

Pixkanaka, beraz, bertsolaritza plazak berreskuratzen ari da. Zehazki, Estatu Batuetako men-debaldean ari dira sortzen bertsoaren inguruko ekimen berriak, ekialdeko kostaldean ezer gutxi dago oraingoz. Washington DC-ko euskal komunitatea «txikia eta sakabanatua» dela dio han bizi den Urtzi Urrutikoetxeak. Euskal etxerik ere ez dute eta, hortaz, ekitaldi zehatz batzuen inguruan baino ez dira elkartzen; adibidez, Korrikan.



New Yorken ere hutsunea sumatzen du Nerea Eceizak. Online bidez saio gehiago egin nahi lituzke, diasporako zein Euskal Herriko bertsolariekin eta, jakina, «harreman zuzena, presentziala» ere faltan hartzen du. Behinik behin, han badute Euskal Etxea eta iaz Igor Elortza eta Rafa Rueda gonbidatu zituzten Anonyme Popular saioa aurkezttera. «Amaieran, Igor Elortzarekin bertso bana botatzeko aukera izan genuen», oroitzen du Eceizak. New Yorken bertso saioaren bat antolatzeko gogoz dago, «hemen inguruetako bertsozaleak zein diren nolabait identifikatu eta haiekin elkartzeko».

Izan ere, diasporako bertsozale batzuen oinarritzko arazoa da ez dutela inguruan zaletasun bera duen inor; esate baterako, Eceizak online bidezko saioetan ezagutu ditu kantu-lagun guztiguztiak. Dena den, bertso-eskola birtualean egindako adiskideek elkarpen handia egin diote: «Arnas Berri eskolako kideok lagun handi egin gara. Astero, AE-Betan bizi duguna, hemengo egoera sozioekonomiko, politiko eta kulturala bertsotan kantatu eta euskaraz gogoeta egiteko aukera ikaragarri disfrutatzen dut». Dei egin die

Ekialdeko Kostaldean bizi diren bertsozaleei Arnas Berrirekin harremanetan jartzera, «Ekialdean ekimenak martxan jartzeko, lana egin behar dugu». Berezi emakumeak erakarri nahi ditu Eceizak, ez baitu herrialde guztian bertsotan ari den besterik ezagutzen.

Luzera begira, bertsozaletasunari eustea lan nekeza izango dela aitortzen dute Ekialdean zein Mendebaldean. Todor Azurtzak, ia bizi osoa Ameriketan egin eta gero, Donostiara etortzeko erabakia hartu du eta kezkatuta dago ea lekukoa nork hartuko duen, batez ere, epe luzera: «Bertso-eskolakoak lanera joandako euskal herritarrek dira, haiek etxera itzultzen badira, nor geratuko da?». Philippe Axeritogaraik onartu du han jaiotakoak erakartzea ez dela erraza: «Ameriketan, euskal izaerari dagokionez, bertsolaritzak ez du Euskal Herrian duen garrantzia, euskal hiztun gutxi daudelako». Nerea Eceizaren ustez, «lehenengo pausoa, euskal etxeen laguntzarekin, euskaraz dakiten eta bertsotan egiteko gogoia duten ume, gazte eta helduak topatzea litzateke, Estatu Batuetako bertsolaritzaren etorkizuna eraikitzen jarrai dezagun».

Irudian, iazko uztailean Boisen izandako bertso saioa. Oholtzan daude Martin Goicoechea, Nerea Eceiza, Oier Pastor eta Todor Azurtza. GAUR8

MARTIN GOICOECHEA

WYOMINGEKO BERTSOLARIA

«Zerbait egin nahian ari gara, gure arte honi bizirik eusteko»

Gorritin (Nafarroa) sortua, Martin Goicoechea 18 urterekin joan zen Estatu Batuetara, 1966an, eta Wyoming estatuan bizi da geroztik. Amerikako bidea hartu aurretik Nafarroako Bertsolari Txapelketan parte hartu zuen. Euskal Herritik urrun egonagatik, ez zaio bertsotarako grina apaldu: bat-bateko saioetan maiz aritzeaz gain, Estatu Batuetako mendebaldean bertsolaritza bultzatzeko ekimen gehienetan engaiatua da.

Martxoaren 22an San Franciscoko Basque Cultural Center-eko oholtzan kantatu zenuen, Estatu Batuetako eta Euskal Herriko bertsolariekin. Nolako gaualdia izan zen?

Oso ongi atera zen, nire ustez, eta otordua ere egin genuen. Gainera, kantatzen ari ginen aldi berean, Xabi Payak ingelesera aldatu zuen guk esandakoa, horrek asko lagundu zuen, ze han bazen jende dezente, 200 pertsona inguru izango ziren. Hurrengo egunean Chinon kantatu genuen, hura ere saio polita izan zen.

Zein egoeratan dago bertsolaritza gaur egun Estatu Batuetan?

Oso zaila dago hemen, baina gutxienez urtean behin erakusten dugu bertsoa zer den, San Frantziskoko saioan. Orain ari naiz urtean bi aldiz egin dadin lortu nahian, udan bat eta neguan beste saio bat, bila ari naiz dirulaguntza nondik lortu. Euskal-amerikar askok ez dakite euskaraz, hor bada arazo bat, baina oraindik badaude zaleak, batzuk oso-oso zaleak. Gehienak handik [Euskal Herritik] etorriak edo haien seme-alabak dira, oraindik euskarari eusten diotenak. Edadetzen ari gara, ordea.

Zu Estatu Batuetara iritsi zinenean, 1966an, giroa desberdina zen.

Bai, eta hala ere, ni etorri nintzenean baino aurreratuagoak gaude egun. 1966an hemen ez zen ezer, ez zen bertsolaririk. Horregatik, hogeitaz urte pasa egon nintzen mutu, bertsotan egin gabe. Behin, Kantari Eguna jarri zuten Gardnervillen, Nevadan, han animatu nintzen berriz kantatzera. Urduri nengoen, baina geroztik segitu egiten dut.

Beterano gehienek oholtzak utzi dituzte. Zuk, ordea, segitzen duzu han eta hemen kantatzen, belaunaldi gazteagoak lagun.

Ez da Euskal Herrian bezalako mugimendurik, baina aritzen gara, bai. Zerbait egin nahian ari gara, gure arte honi, gustatzen zaigun arte honi, bizirik eusteko.